


BALAIKE

100 pta.

44. zenb.



- Greenpeace kirol portuaren aurka
- Arte taldearekin solasean
- Ziani eta Insausti onenak herri krosean

● Migel Larbururekin elkarrizketa:

Aljeriak etorkizunerako oinarri bikainak ditu

ERROTA



OPILOKINDEGIAT

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa Tel. 860000

Erribera, 2 143001

Juan Belmonte, 5 860300

Basadi, 4 143221

P. Etxezarreta, 42 862528

Foto Mirtce
ZUMAI A

TEL. 861707

Erreportai

Jaunartze

*Estudio
argazkiak*



etor zaitez!

Foronda kultur etxea
tel.: 86 10 56
faxa: 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE
BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Amaia Benito
Eneko Dorronsoro
Josu Waliño
Inaki Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Joseba Ossa
Juan Luis Romatet
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kazetariak

Igor Uranga
Gorka Zabaleta
Antxoka Agirre

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor, Josu
eta Arantxa, Igone eta
Nerea, Rikardo
Zengotita, Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.
Komikia
Jon Ander Garzia

Argazkiak

Jonathan Bernal
Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Itziar Uranga, Xabier
Azkue

Banaketa

Eneko Dorronsoro
Ainara eta konpainia

Publizitatea

Inaki Zubimendi 143226

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleike ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Eskerrak Esperri

Aznarren gobernuko Espek, Agirretar Esperantzak, esandako zerbaitek, lagun batek kontatutakoa ekarri dit gogora. Eskerrak gure señoarak ondo informatuta gauzkan eta lau haizetara zabaldu duen "Euskal gizartea dogmatikoa eta fundamentalista" dela. Orain... orain hobeto ulertzen dut behin nire lagunei gertaturikoa. Andorrako terraza batean, eguzki galgatan, gozo gozo zeudela, haur baten karraxiak esnatu zituen:

"Aitaa pixaaa!", aitak mugitzeko imintziorik ez, eta laguna, Ramon, "tori txiki" esanda badoa umea eskutik duela komunera. Derrepentean... sekulako buila, "Ieii, iepa, ieiii!!!", eta Ramonek "akabo, honek umea sekuestratu nahi dudala edo pentsatu dik". Erabat ikaratuta bueltatu, eta aurrez aurre duen gizon puskak zer esango?... "Euskaldunak? Euskaldunak al zarete?, enee! Etxetik hain urrun euskaldunak topatzea ere baduk eee?"

Umea pixainean aritu zen bitartean, bizkarreko pare, eta kontu piloa esan zizkion (kabituz ezinezko pozaren pozez), komunetik irten, eta oporretako parte: haurraren komuniorako bideo-kamara erostera etorri zirela, nobentaizinko mil ordaindu zutela, ea ba konpra ona egin zuten, 3 egun besterik ez zituztela, baina berriz ere etorre behar zutela... eta horrela ordu bete ondo osatu arte. Etxeko telefonoa ere eman zieten "etorri geo e?", izan ere, euskaldunak topatu "eta gainera hain jatorrak" ba... ke menos. Hau guztia entzutean aurrea ia lehertu ginen, eta gero, oraindik ere herritarrei etxea eta bihotza parez pare zabaltzen dionik ere badela komentatu genuen, baina... ai ama! Eskerrak Espek begiak zabaldu dizkigun: hori ez da parte oneko poza, ez da normala herritar baten aurrean hainbesteko konfidantza agertzea. Horiek, seguru-seguru fundamentalista horietako batzuk izango zirela, ezta Espe? Esperri esker nire lagunak salbu daude. Ez diete telefonoz deituko ez eta bisitatuko ere.



Esther Aizpurua



Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka	14 32 64
Polikiroldegia	86 20 21	Tren geltokia	86 11 27
Gurutze gorria	86 10 93	Taxi geltokia	86 13 60
Udaletxea	86 02 50	Bake epaitegia	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	86 22 00	Posta	86 15 00
Osasun zentrua	86 08 62	Udaltzaingoa	86 18 70
San Juan Egoitza	86 12 73	Pilotalekua	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	86 17 00	Larrialdi zerbitzua	46 11 11
Musika eskola	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	86 02 48
Alkoholikoen senideak	47 54 03	Sexu-informazioa	32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala





OLALDE

Gripea

*Neguaeren adierazgarri
estula eta musika
jarabeak eta aspirinak
sarritan hartu ohi dira
bainan hau baino gogorragoa
gripe deitzen dan hori da
aurtengo hontan gainera nahiko
gogor ematen ari da.*

*Urtero etorri ohi zaiguna
zorigaitzeko birusa
ondoez batekin kutsatuta
utzi ohi digu gorputza
txertu eta guzti menperatzen
nahiz dabilen medikuntza
urtero bixitatu ohi gaitu
nonbait da berezko gauza.*

Aurrera kulturie!!

Lerro batzuk idaztea eskatu didazue, baina nere barnean zalantza ugari sortu zaizkit, ez baitakit une honetan zer esan zuei, hainbat gai baitira gure artean azpimarragarri. Baina, galdetzen badidazue, zer den azken bolada honetan, gazteen arteko giroan sortu diren ekintzetatik zein izan den nere arreta bereziki piztu duena, hauxe bera! Zuek sortutako aldizkari berri hau!

Ni, kirolzalea naiz eta praktikatu izan dut, bai futbola, bai pilota, arrauna eta ez hainbeste mendizaletasuna, tamalez! Nire ikuspegitik, zuen kirolzaletasuna gorai-patzen dut, gaurko mundu estresatu honetan beharrezkoa dela iruditzen baitzait; beharrezkoa bai, baina ez nahikoa. Esaera zaharrak dienez, "mens sana in corpore sano", hau da, gorputz eta arima orekatuak behar ditugu. Horrek esan nahi du gure kultura ere landu behar dugula. Eta hainbeste aipatzen den hitz hori, kultura, zer ote da? Oroitzen naiz estudiante nintzela kulturari buruz entzundako hau: kultura litzateke, datak, fetxak eta gauza horiek guztiak ahaztuz, geratzen zaigun jakinduria. Oroimenera datorkit On Joxe Miel Barandiaranek esandako hura: "euskaldunak badugu sortzen diren arazoei erantzuteko modu berezia". Bi hitzetan esanda: EUSKAL KULTURA.

Liburu sakon bat irakurtzen ari nintzela, jakinduria eta ezagupideari buruzko saiakera luze hartan, hontara iritsia zen pentsalaria: jakitea da errealitatean bizitzearen nahia eta gustua, hori ez al da, hitz batean esaten dena, berezko jator-tasuna; gizaki egizalea, zintzoa, hau da, bakoitzari dagokiona ematen diona. Badago oraindik zeregin ugari, animo...

Aurrera kulturie!!!



JOXE ETXEBERRIA



7
MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES DAZETIAN

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA

agustin

HARAKINA

Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430

BASADI

**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Greenpeace kirol portuaren aurka

Irregularitasun batzuk medio, lanak geldiaraztea eskatuko dute

*Greenpeace erakunde ekologo-
gista, kirol portuko lanak
geldiaraztea eskatuko du,
Zumaia Bizirik plataformak
dagoeneko egin duen
bezalaxe. Lanak ikuskatzen
egon ondoren, irregularitasun
batzuk daudela jabetu dira.
Besteak beste, hondakinak
jaurtikitzen ari diren itsas
puntua ez dagoela aurrei-
kusita proiektuan eta
botatzen ari diren hondakin
horiek ez daudela behar
adina analizatuta.*

Kirol portuaren proiektua auzi korapilotsu eta gatazkatsua bilakatu da hasiera-hasieratik. Proiektu honen aldeko jarrerak asko dira baina kontrakoak ere ugari ditugu,

Greenpeace erakunde ekologista ezaguna adibidez.

Erakunde honetako ordezkari bat otsailaren 18an izan zen Zumaian kirol portuko lanak gainbegiratzen eta Eva Hernandez

Greenpeaceko partaideak azaldu zuen bezala, "lan hauetan irregularitasun bat baino gehiago daudela ohartu gara". Paol muturrean eta portu barnean dragatutako hondakinak Zumaia mila batera bota dira eta hau egiteko "ez dago baimenik, ez dago proiektu ofizialaren barne. Gainera, hondakin horietan dauden materialen azterketa zehatzik ez da burutu". Hauetan, material kutsagarrien kopurua kezagarria izan daitekeela uste dute.

Material kutsagarri hauek tratatzeko modua ere ez dela zuzena adierazi du Eva Hernandezek. "Kutsagarriak badira, kostatik 150 miliatara eta 1.000 metroko sakonerara jaurtiki behar dira, Pariseko tratatu internazionalak aurreikusten duen bezala".

Datu eta informazio bilketa

Greenpeace-ek hainbat datu eta informazio jaso du eta hauetan oinarrituz, kirol portuko lanak geldiaraztea eskatuko du. Era berean, Zumaia Bizirik plataformak, errekurtsio bat aurkeztu du Justiziako Auzitegi Gorenean, arrazoi berdinarengatik. Ingurugiroari egiten zaion konpondu



Zumaia Bizirik eta Greenpeaceko kideak elkarrekin.

ezinezko kaltean oinarritu dute beren errekurtsioa.

Guzti honi irtenbide bat emateko orduan, Eva Hernandezek argi eta garbi utzi nahi izan du, "soluzioa kirol portua ez egitea da. Ez dira errentagariak ikuspuntu ekonomikotik eta ezaugarri hauetako padura bat hondatzea kirol portu bat egiteko, kostaldea pribatizatzea eta fondoak bidegabe erabiltzea da".

Gainera, hasiera batean itsasora jaurtiki behar zen hondakin kopuru guztia ez da botako. Honen zati bat astillero alboan moila edo kai bat eraikitzeke erabiliko da. Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Departamenduak otsailaren 4ean hartutako erabakiari kasu eginez, paduran dragatutako hondakinak, proiektu ofizialean aurreikusita ez zegoen beste itsapuntu batean botako da; bestalde, dragatzeko sistema ere aldatu egin da. Aipatutako puntu hau, portutik bi miliatara aurkitzen da.

◀ **IGOR URANGA**

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 861407



Erne dantza lekuaren auzia epaiaren zain

Bost akusatuak eta eroritako asko zumaiarrak dira

1994ko irailean, Bad Religion taldea kontzertu bat ematen ari zela, pistetako bat erori eta ehundaka lagun fosora amildu ziren. 200 pertsonatik gora izan ziren zauriengatik demanda ezarri zutenak. Egunotan burutu da epaiketa eta bertsio ezberdinak entzun dira bertan. Epailearen erabakia bakarrik falta da.

Haseratik bi hipotesi entzun izan dira pistaren erorketaren inguruan. Baten arabera baimendutakoa baino jende gehiago sartu izana litzateke erorketaren eragile nagusia, 3.000 lagun egon baitziren Bad Religionen kontzertuan dantzalekuaren baimena 700 pertsonarentzakoa izanik. Bigarren hipotesi baten arabera dantzalekua eraikitze-rakoan buruturiko akatsak, eta batik

bat porlanaren kalitate eskasa, lirateke erorketaren eragile, epaileak eskatutako informe perizialek seinatzen zutenek porlanaren erresistentzia 82 kgr/cm^{-koa} bait zen legez eskatu ohi den 175 kgr/cm^{-koa} beharrean.

Fernando Gajate arkitektoa, Narziso Korta jabea, Castor Agirrezabalaga aparejadorea eta Inazio Egaña kontratista eta maizterrentzat hilabeteko kartzela eta 50 milioiko indemnizazioa ordaindu beharra eskatzen du Fiskalak. Akusazio partikularrek lau hauez gain Jesus Mari Esnalentzako ere eskatzen dituzte zigorrak.

Arkitektoa eta aparejadoreak lehenengo hipotesiari heldu diote. Fernando Gajatek azaldu duenez Erneren egitura dantzaleku bat hartzeko zegoen diseinatu, eta ez kontzertuak emateko. Castor Agirrezabalagak berriz, porlanaren kalitatea aztertzea berari zegokiola eta azterketek emaitza normalak eman zituztela esan du, eta Erne eraiki zenean porlanaren erresistentzia informe perizialek aipatzen dutena izan balitz dantzalekua 1984an bertan eroriko zela gaineratu.

Narziso Korta jabeak adierazi duenez udalaren baimena 700 pertsonatara mugatzen bazen aparkamendu arazoengatik zen eta ez dantzalekuaren aforo arazoengatik. Bere hitzetan udalaren baimena gora-bera 3000 pertsonaraino hartzeko asmoarekin diseinatu eta eraiki zen Erne, hori baino dantzaleku txikiagoa ez baitlitzateke errentagarria, eta kontzertuak ematea ere aurrikusia zegoen, bi pisten artean eszenatoki bat eraiki izanak frogatzen duenez.

Inazio Egañak ere bigarren hipotesi hau defenditu du dantzalekuaren

ebakuaziorako planean 2850 pertsonako kopurua erabiltzen zela seinatuz, eta eraikuntza prozesuan kontratistarenaz gain ez zuela bestelako erantzukizunik azpimarratu du.

Azkenik Jesus Maria Esnal gerenteak dantzalekuaren seguruak 1000 pertsonarentzako aforoa jasotzen duela adierazi du.

Akusatuaren ondoren perituei tokatu zaie hitz egiteko txanda, eta guztiak bat etorri dira dantzalekuaren istripuaren eragile nagusia erabilitako porlanaren kalitate txarra izan dela ondorioztatzerakoan. Pistaren erorketa, honi eusten zion zutabe baten hausturak ekarri zuen, eta zutabea hautsi zeneko aldea obran bertan egindako porlanarekin, ur gehiegi nahasteagatik erresistentzi gutxiagokoarekin egindakoa zen, perituen hitzetan. Beste motibo batzuk ere aipatu dituzte. Hala nola zutabeen lotura desegokia, kalkulu akatsak eta dantzalekura jende gehiegi sartu izana. Baina behar den bezalako porlana erabiliz gero guzti hauek ezingo zuketela istripurik ekarri erizten diote.

Akusazio partikularren eta Fiskalaren zigor eskariak eta abokatu defenda-tzaileen libre absoluzio eskariak etorri dira azkenik. Arkitektoa eta aparejadorearen abokatuek istripua dantzalekuaren erabilera desegokiagatik eman dela eta beren defendituek honetan erantzukizunik ez dutela argudiatu dute. Beste hirurenak berriz dantzalekuaren erorketa hau eraikitzerakoan buruturiko akatsengatik eman zela eta beren defendituek ez dutela honetan inolako parterik.

Epaileak erabaki beharko du.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

ARGIA

Itzurun, 1
Tel. 860993

AUTO-ESKOLA

ZUMAI

STOP

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 861018

Juanjo Aranburu:

“Osorik atera ginenean, ondo”

Juanjo Aranburu istripuaren gauean Ernen zegoen gazte-tariko bat da eta egun hartan bizitakoa kontatzeko eskatu diogu.

“Gu hamabost lagun inguru joan ginen. Ernera joaten nintzen lehen aldia zen eta orduan ez zitzaidan iruditu beste tokietan baino jende gehiago zegoenik. Hori bai jende guztia pistetan zegoen pilaturik. Lehen taldeak jo ondoren, atsedenean zerbait edatera joan ginen ni eta lagun bat. Bad Religion jotzen hasi zenean pistara hurbildu nintzen, lagunena bila. Jendea saltoka hasi zen eta nik lurra gora eta behera egiten zuela nabaritu nuen. Bat-batean, hautsi egin zen eta denok behera erori ginen. Hasieran ez nekien zer gertatu zen. Jende mordoa nuen gainean eta ezin nintzen mugitu. Taldeak jotzen jarraitzen zuen, hautsarekin ez baitzuten ezer ikusten. Jendea marruka eta negarrez ari zen eta arnasa hartzea ere zaila zen.

Jendea ateratzen hasi zen pixkanaka. Uste dut bost minutu egon nintzela han azpian harrapatu, baina oso luze egin zitzaidan. Halako batean, burua mugitu ahal izan nuen eta lagun bat ikusi nuen. Hark lagundu zidan ateratzen. Jendea zauri ugariarekin



ikusi genuen. Batek belauna buelta emanda zuen, atzera begira.

Beheko solairutik atera ginen oinez. Erropak txikituta nituen baina ez nuen minik sentitzen. Lagun guztiak bildu ginenean alde egin genuen”. Baina hurrengo egunean etorri ziren komeriak. “Amak esnatu ninduen gertatutakoa entzun eta erropak ikusi ondoren. Orduan, burua altxa nuenean zerbait nuela igerri nuen. Medikuarengana joan eta lepoa bihurritu nuela esan zidaten. “Lau hilabetez lepokoa eraman behar izan nuen, eta eguneroko osatzeko ariketak egitera joan. Handik osorik atera ginenean, ondo. Bost minutu haiek ezin dira ahaztu. Ez dakizu zure azken minutuak diren, noiz aterako zaren... ez dakizu zenbat denbora irauteko gauza zaren”.

Une latza pasa arren, Juanjori ez zitzaion kontzertuetara joateko gogoa kendu. “Hurrengo astean beste kontzertu batera joan nintzen, lepoko eta guzti. Gaizki pasa nuen, burua mugitu ezinik bainengoan, baina istripuagatik ez nion kontzertuetara joateari utziko”. ◀ **ANTXOKA AGIRRE**

Laburrak

Basadi eta Aita-Mari arteko lotura.

Bi auzo hauek komunikatuta egon daitezzen erdi peatonala izango den errepidea luzatu egingo da. Bi kale horien artean aurkitzen den aparkaleku hori txukundu eta mantentzeko asmoa ere badago.

Hotel eta Thalaso-terapia zentroa eraiki nahi da Zelaian.

Hasierako proiektuan aldaketatxo batzuk egiten ari diren arren urte honetan seguruenik Zelaiako etxea hotel eta Thalaso-terapia zentru batetan bilakatuko da.

Pasealekua Txikiardi eta Narrondo artean.

Aurreko alean aurreratu genizuen Galvanizados Olaizolak bere enpresa zabaldu nahi zuela. Hau horrela izango dela aprobetxatuz, Udalak Txikiardi eta Narrondo auzoa lotzen dituen pasealeku edo “boulevard” antzeko bat eraiki nahi du.

“Telefonika”-ko eraikuntzaren ordezkari aparkalekuak.

Ibilgailuentzako aparkalekuak egingo dira “Telefonika”-ko eraikuntza zegoen tokian, Ardantza bidean. Honetaz gain, orain ikusten den horma handi hori txukuntzeko asmoa dago. Lan hauetan, milioi t´erdi pezetan erabiliko dira.

Biztanlegoa hazten Zumaian

1996ko maiatzetik 1998ko urtarrila bitartean egindako datu bilketaren arabera, Zumaian 56 biztanle gehiago daude. Guztira orain 8. 333 biztanle gara.

Arkupe
Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

AUTOS ZUMAIA
Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45 Tel. 861485

AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2 Tel. 862206

Gora-beherak ikastetxe berriarekin

Instalazioen erabilerari buruz ez dago adostasunik

Zumaiaiko Institutua eta Udalaren artean desadostasuna sortu da Herri Eskolako Ikastetxe berriaren urbanizazio lanekin eta bertan izango diren instalazioekin. Rikardo Peña alkateak esandakoaren arabera, instalazio horiei erabilerari publiko bat eman nahi zaie eskolako orduetatik kanpo. Roberto Orbea Institutuko zuzendariak, berriz, adierazi du hau horrela gerta dadin akordio batera iritsi behar dela bi aldeek artean.

Izan ere, Orbeak azaldu duenez, "1987ko arau subsidiarioetan argi azaltzen da, instalazio horiek egongo diren terreno hori, erabilerari eskolarerako dela soil-soilik". Argi utzi nahi du ordea Institutuko zuzendariak, beraiek ez daudela erabilerari publiko horren kontra, baizik eta urbanizazio horretan egongo diren hainbat instala-

zioen segurtasuna bermatzea eskatzen dute, Institutukoak beraienak lirakeenak: jardin botanikoa, inberradon bereziak...

Rikardo Peñak erantzun du, berak ez duela Institutuarekin zer hitz egin. "Hartu beharreko erabaki guztiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin kontsultatu ondoren hartuko ditugu". Erabilerari publiko eman nahi zaien instalazio horien artean, besteak beste, pasealekuak, berdeguneak eta estali gabeko hiru futbito pista daude.

Urbanizazio lan hauetako lehen zatia aurreko urteko abenduan hasi zen eta apiril aldera amaituta egotea espero da. Lan hauek 330 milioi pezeta



inguruko aurrekontua dute eta ikastetxe berriaren eraikuntzak aldiz, 73 milioi pezetakoa. Guztira, 440 milioi pezeta, Eusko Jaurlaritzak finantzatu duena. Betetze lanak eta bestelakoak Udalaren esku geldituko dira.

Datorren ikasturterako prest egotea espero den Herri Eskolako Ikastetxe berri honetan, mila pertsona inguru sartuko dira, ikasle, irakasle eta gainontzeko langileen artean.

Zumaia eta Deba arteko trenbidea martxan jarriko da

Zumaitik Debara autobusez dagoen bide aldrebesa eta aurrera jarraitu ahal izateko trenera egin beharreko transbordoak bukatu dira.



Eusko Trenekoek adierazi digutenez irekitze eguna erabat zehaztu gabe badago ere ziurra da Martxoaren 16tik 22ra bitartean izango dela.

Bi herrien arteko linea 1995eko maiatzetik zegoen etenda. Hasiera batean tren berri jarriko ote zuten ere zalantzan jarri zen Arronamendiko lurjauzi etengabeek asko zaildu baitzuten trenbidearen berreskuratzea. Bide zaharra pasatzen zeneko malda erabat ezegonkorra zenez, tunel baten bidez mendia beste

aldetik pasatzen duen bariantea egin behar izan dute azkenean.

1000 milioiko aurrekontua, Lakuak jarritakoa, erabili da 1200 metroko luzera duen tunel hau irekitzeko.

Eusko Trenen hitzetan Itsaspeko tunelak Deba-Beheko bailara eta Donostia arteko komunikazioa hobetu, Bilbo-Donostia ibilbidea indartu, eta Bilbo eta Hendaia arteko zuzeneko konexioa ahalbidetuko du. Eta bati baina gehiagori bizimodua erraztuko dio.



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067

AZKUE

Taberna - jatetxea


KARTA . MENUA . OHEAK

Basadi, 9

Tel. 862441

balezulo

importaturiko enopa eta artisautza



Basadi, 3

“Aljeria tunel beltzean sarturik dago, baina etorkizunerako oinarri bikainak ditu”

Migel Larburu zumaiarrak 25 urte inguru daramatza Aljerian, eta gaur egun Aita Zurien koordinatzailea da bertan eta Tunezen. Afrikako iparraldeko estatu hau une latzak bizitzen ari da, eta Migelekin hitz egin dugu, bere esperientziaz baliatuz, bertako egoera hobeto ulertzeko asmotan. Migelek askotan egin behar izan ditu berriemaile lanak Euskal Herriko eta Espainiako komunikabide handientzat. Oraingo honetan guretzat aritu da, eta bihotzez eskertzen diogu.


■ Migel, nola azaldu arrotz bati hor gertatzen ari dena?

Garai ezberdinak bizi izan dira hemen. Nire ustez, gauzak aztertuz, arazo handiena izan da independentziaren ondoren hezkuntza arloa oso gaizki landu dutela. Erlijioa sartu zuten baina ez gizartea berritzeko asmoz, baizik eta modu tradizionaletara itzultzeko. Gaur eguneko arazoei aurre egiteko ez du balio izan. Bigarrenkoz, Aljeria oso herri aberatsa da. Hasieratik indarra militarrek hartu zuten eta ez dute utzi nahi. Hemengo aberastasun guztia talde txiki batek jasotzen du eta herria gero eta pobregoa da. Azkenez, nire ustez badira kanpoko interes handiak. Aberatsa izateaz gain estrategikoki ere toki berezia da, eta nire ustez kanpoko indarrak lan egiten ari dira gauzak euren erara eramateko.

■ Nolako egoera bizi duzue une honetan Aljeran?

Nik uste det duela urte t'erdi baino lasaiago gaudela. Epe honetan ez gaituzte ikutu. Hemen hil zuten azkena Oraneko gotzaia izan zen. Hemen hirian lasaiago gaude alde horretatik, baina Aljeretik bost kilometroa izugarritzko hilketak gertatzen ari dira.

Hemen zombien modura ibiltzen gara. Horrelako berri bat iristen zaigunean benetan jota geratzen gara. Istilu hauek hasi zirenetik hiri handian bizi gara. Orain dela lau bost urtera arte bageunden batzuk herri txikietan edo basamortuan, baina ordutik hona hiri handietara jaitsi behar izan dugu, babes handiagoa dugulako. Baina pena handia ematen digu, urruti gaudelako jende apalengandik, eta horiek dira gehien sufritzen ari direnak.



Migel Larburu. Aljeria eta Tunezko Aita Zurien koordinatzailea

Dena den, egoera argitzen ari dela esango nuke.

■ Zertan igertzen duzu hobetze hori?

Ramadana bukatu berria da. Aurtengoa gogorra izan da eta izan dira bonbak eta atentatu gogorrak, baina ez iaz bezain larria. Ikusten ari gara materiala gutxitzen ari zaiela eta jendea ere gutxiago prestatuta dago, bonbak eskuetan lehertzen zaizkie eta. Mendi aldean ere ematen du egoera argitzen ari dela. FISekin eta inguruko talde armatuekin su-eten bat lortu da, ez ofizialki, baina herrietan hori ikusi dugu. FISekoak eta ejerzitioa ikusi ditugu bat eginek GIaren aurka.

■ Baina politikoki ez da oraindik ezer konpondu.

Gobernuak indar handiagoa du orain. Kanpotik laguntza jasotzen ari da,

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak
GARRAIO ASTUNAK



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073

CARLIN
OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORIJINALAK, HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale nagusia, 3

Tel/Faxa: 143453

Espainiarena kasu. Europako estatuek interes handiak dituzte hemen, eta mugitzen hasi dira. Gobernuaren alde ari dira jartzen eta horrek indarra eman dio.

FISek 91ko hauteskondeak irabazi zituen, baina ejerzitoak ez zion boterea hartzen utzi. FISi boterea emanaz gero, ez al zineten beste egoera batean egongo?

Erantzuna oso zaila da. Nik lehen horrela pentsatzen nuen. Behin hauteskundeak egiteko aukera izan eta zergatik ez bukeraraino iristen utzi. Gaizki eginez gero, herriak erabaki zezala. Ni orduan basamortuan nengoen eta gauzak ezberdin ikusten ziren. Baina behin Aljer-era etorri nintzenean jendearen beldurra ikusita, iritziz aldatu nuen. Nik uste dut orain Kabul (Afganistan) bizi den egoera izango zela hemen gaur egun. Horren aurrean, zer esan daiteke?, ez da erraza. Gauzak ez dira bide horretatik joan eta gaur egun dugun arazoari egin behar diogu aurre. Baina buruan beti izango dugu galdera hori, zer gertatu ote zen FISi boterea emanaz gero.

“Ez dadila izan erlijioa banatzen gaituena, batzen gaituena baizik. Hori da nire oinarrizko pentsakera. Ez dakit zer esan nahi duen jaungoiko bat edukitzeak ez badakigu gizakion artean elkarrekin bizitzen”.

■ Duela zenbat urte joan zinen hirira basamortua utzita?

1992an etorri nintzen Aljer-era egoera gogortzen hasi zenean. Nire lagunak heriotzak bizitzea tokatu zait . 19 lagun galdu ditugu eta horietatik 18 elizbarruti honetan, Aljer-ekoan. Hauetatik lau nire kongregaziokoak ziren. Orain dela hiru urte hil zituzten azken lau Aita Zuriak. Kabilian gertatu zen. Guk han 120 urte baino gehiagoko historia dugu. Bertakoa oso herri



Saharara itzulzeko gogo du Migelek.

berezia da, ez dira arabiarrik, euren hizkuntza eta tradizio propioa dute, eta independentzia asmoak ere badituzte. Beraien tradizioa eta kulturari buruzko lehen liburuak eta lanak guk egin genituen. Lau Aita Zuri bakarrik gelditzen ziren han eta hil egin zituzten. Oso garbi ez dago zergatik hil zituzten eta zeintzuk izan ziren ere ez da argitu.

■ Zuk heriotza gertutik ikusi al duzu?

Zaila da esaten. Ni asko nabil bideetan eta errepidetan nire arduragatik. Herriz herri zabaldua dagoen komunitate honen ardura dut eta batetik bestera mugitu beharra dut, eta gauza asko ikusten dira. Duela gutxi horrelako bidai batean, izugarritzko euritea ari zuen eta zubi bat pasa behar genuen, baina moztuta zegoen uholdeagatik. Gizon batzuk hurbildu zitzaizkigun esanez “buelta hau eman behar duzue”. Izugarritzko hilketak gertatu diren herri batetik pasatzeko esaten ziguten. Oranera iritsi behar ginen eta aurrera egin genuen. Astebetera izugarritzko hilketak egon ziren han. Une hartan ez genuen ezer ikusi baina horrek esan nahi du edozein unetan gerta daitekeela zerbait. Gogorrena da urte asko direla ez ohiko egoera batean bizi garela. Eta hortarako indarra nonbaitetik sortu behar da. Guri bokazioak eta egoera berdina bizi duten lagunekin egoteak indar hori ematen

digu. Nola hala pasatzen ari gara urte hauek.

■ Beldurrik ez al duzue?

Nik uste dut gaintitu egiten dela, onartu egiten dela. Barruko indar handia sortzen da bihotzean. Talde guztia oso lasai dago. Arazo larriak daudela ikusten dugu baina lasai bizi gara. Askotan nire anaiak esaten dit Estokolmoko sindromea dudala. Egoera gogorretan beti eseri eta erabaki bat hartzeko hitz-egiten dugu. Burua hotz dugu. Ohitu egiten zara.

Baina sei urte egoera honetan bizitzeak eragina du pertsonarengan. Nahi ta nahi ez, aldatu egiten zara. Guzti hau amaitzeko gogo handia dugu eta ia bizitza normal batera iristen garen, ez guretzat, herri honentzat baizik.

■ Zer pentsatzen duzu European hango egoera axola ez zaigula ikustean?

Bi gauza esan nahi nituzke. Alde batetik, uste dut jendeak informazio eskasa duela. Madrilgo irrati batekin haserre handia hartu dut duela gutxi. Esaten ari ziren Aljer-en komunikabideak oso itxiak direla, eta hori ez da horrela. Prentsa nahiko irekia daukagu, nik uste dut etorkizuna argiagoa ikusten dugula egunkariak oso irekiak direla ikusten dugulako. Ez dago beste herri arabiarrik horrelako prentsa duenik. Europa aldean

tremendismora gehiegi jotzen da. 40 edo 60 pertsona hil direla, eta horixe azpimarratzen da beti, eta notizia hori ziurrenik etorriko da futboleko emaitzen eta Roldanen istorioen artean. Nik uste dut gai hauek azaletik tratatzen direla soilik. Bestetik, nik esango nuke ardura-dunak ere badaudela Aljeriatik kanpo. Interes handiak daude hemen eta horiek babesteko edozer gauza egiten da, armak saldu behar badira saldu, edo korrupzioa egin behar bada egin. Guk hemen mugitu behar badugu European ere jendeak mugitu beharko du hau konpontzeko.

■ Hasiera batean hildakoak intelektualak ziren, jende jakintsua eta gizartearengan eragina zuena. Orain berriz jende pobrea hiltzen ari dira. Zergatik aldaketa hori?

Hasieran intelektualak hil zituzten publizitatea lortzeko. Euren helburua lortu ondoren pobreekin hasi ziren. Azken heriotzekin ere oihartzun handia lortzen ari dira. Baina baita esaten da jende pobreak FIS alderdiari eman ziola botoa hauteskuntetan eta horregatik ari direla hiltzen, baina niretzat hori azaleko argudioa da.

■ Ze etorkizun ikusten diozu Aljeriari?

Une honetan ez dugu ezer ikusten, tunel beltzean sarturik gaude. Baina gauzak ikuspegi historikotik ikusten direnean uste dut sei urte ez direla ezer. Krisiaren barnean zaudenean, barnetik bizi duzunean, oso gogorra



da sei urte horrela bizitzea, baina historian ez da ezer. Nik uste dut Aljeriak oraindik aukera asko dituela. Aberastasun handiak ditu, ez bakarrik petrolioa, jendea ere oso irekia da hemen. Erraztasun handia dute hitz egiteko eta gauzak esateko. Etorkizunerako oinarri bikainak ditugu. Herri handia eta zabala da Aljeria. Etorkizun hau ez da hemendik bi urtera etorriko, arazoak sakonak baitira eta zulutik ateratzerako luze joango da. Hor ez dut ilusio handirik egiten, urte asko beharko dira. Baina herri handi bat izateko aukera guztiak ditu.

“Ni sekula ez naiz izan kristau tartean dabilen apaiza, sekula ez dut bataio bat egin, sekula ez dut parrokia bat izan. Ohituta nago kristautasuna lanaren eta eguneroko hartu-emanen bidez aurrera eramaten”.

■ Askok aldatu al da Aljeria azken 25 urtetan?

Bai asko aldatu da. Independentziaren ondoren ilusioa eta itxaropena bizirik zeuden. Jenerazioen arteko gatazkaz hitz egiten da askotan, esanez gurasoak beti atzera begira daudela. Hemen alderantziz gertatu da. Oraingo gazteen gurasoak askoz irekiagoak ziren. Pixkanaka gizartea ixten joan da. Olatu guztietan bezala historiak ere gora egin ondoren behea jotzen du, eta hemen orain nahiko behea jota gaudela uste dut, baina berriro gora egiteko esperantza guztiakin.

■ Nolatan erabaki zenuen bizimoduz aldatu eta Aljeriara joatea?

Nire aita eta anaiak itsasoan ibili izan dira, eta nik ere asmo horiek nituen. Baina behin seminarioan nengoenean Itun Zaharreko esaldi bat entzun nion bati eta hark piztu zidan behar hau. Abrahamen hitzak dira: “Irtzen zaitetz zure herritik eta zoaz nik erakutsiko

CORO PRIETO
Esteticista

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g

S
DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

EGUZKI
PUB
Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ekin
ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
ISTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: Kale Nagusia, 8 Tel/Faxa: 143097
TAILERRA: Larretxo, 10 behea1. Tel. 143474

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

Arduradun
gisa bost
urte
daramatza
Aljerren.



dizudan herrira". Aita Zurieta sartu nintzen eta Saharako basamortura etorri nintzen. Ni sekula ez naiz izan kristau tartean dabilen apaiza, sekula ez dut bataio bat egin, sekula ez dut parrokia bat izan. Beti jardun izan dut soldadura lanetan, eskola profesioanetan. Ohituta nago kristautasuna lanaren eta eguneroko hartu-emanen bidez aurrera eramatera. Hemengo jendea, erlijioa eta ohiturak ezagutzen, eta harremanak sortzen, gizarte bateratu bat eraiki dezagun. Ez dadila izan erlijioa banatzen gaituena, batzen gaituena baizik. Hori da nire oinarrizko pentsakera. Ez dakit zer esan nahi duen jaungoiko bat edukitzea ez badakigu gizakion artean elkarrekin bizitzen.

■ Gogoan al duzu Zumaia, zure jaioterria?

Hainbeste urte kanpoan pasa ondoren, Zumaia oso bihotzean daramat. Oso inportantea da kultura bat gorde eta zabaltzeko kultura propioan sustraia hartuta egotea. Hori funtsezkoa da norberaren nortasuna mantentzeko. Baina ezin gara gure kulturarekin bakarrik geratu. Kanpora irten behar

dugu, kultura berriak ezagutu eta horrela gureak ere asko irabaziko du, eta gure nortasunak ere bai, dudarik gabe, askoz aberatsagoak izango gara. Zumaia askoz gehiago maite dudala uste dut duela 25 urte baino, eta hori erdi aljeriar egina nagoela.

■ Zein da zure eginbeharra hori?

Urte askotan aritu izan naiz eskola profesioanetan, delineaioa eta soldadura irakasten. Baina duela sei bat urte Aljer-era etorri behar izan nuen taldearen ardura eman baitzidaten, koordinatzaile. Bost urte daramatza talde honen buru, bai Aljerren eta bai Tunezen. Une txarrean tokatu zait eta nahikoa neke ematen ditu.

■ Noiz arte jarraituko duzu Aljerian?

Oraindik beste urte bete eman behar dut ardura honetan, baina niretzat pozgarriena Saharara itzultzea litzateke, batez ere arazo ugari ditugulako han. Gero eta jende gutxiago dugu bertan. Gazterik ez dator hona, egoeragatik. Erroman nahikoa beldur dira eta ez didate jende

berririk bidaltzen. Nire ametsik handiena Saharara itzultzea da.

■ Noiz izan zara azken aldiz Zumaian?

Azken aldiz udan izan nintzen bertan. Aurrena hiru aste pasa nituen, eta Aljeriara etorri eta astebetara itzuli egin behar izan nuen aita hil zitzaidalako. Joan den abuztuan izan zen hori.

■ Eta noiz ikusiko zaitugu berriro?

Maiatzaren hasieran egun batzutan izango naiz. Gero Erroman batzarra dugu Aita Zuri guztiok, sei urtetik behin egiten duguna. Gero udan ia hilabete bat harrapatzen dudana. Orduan ikusiko gara.

■ Zumaiarrei eta Baleikeko irakurleei agurren bat bidali nahi al diezu?

Oso bat eginda nago Zumaiarekin. Nahiko berri etortzen zaizkit. Anaiak esaten zidan herenegun jende askok galdetzen duela nire berri. Azkena izan nintzenean ere gutxi ezagutzen nuen jendeak esaten zidan askotan pentsatzen zutela ni hemen nembilela. Poza ematen du, horrek esan nahi duelako elkartasuna badagoela. Herriko seme batekin gogoratzen dira une larriak pasatzen ari denean. Mila esker guztiok eta Baleikeko irakurle guztiok esan nahi diet beti eskuzabal izateko kanpoko herriekin eta kulturarekin, eta ikasteko hauengandik aberatsagoak izateko. ◀

ESTHER AIZPURUA, GORKA ZABALETA



ENTER
INFORMATIKA

Ordenagailu salmenta
zerbitzu teknikoa
hardware eta software
informatikako kurtsoak

Tel. 861175
Faxa: 860550

Baltasar Etxabe z/g



Auto-konponketak
ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea TEL. 860201

zer egingo zenuke alkatea bazina?



Ander Urbieto

Gaztetxe bat
eta gaztientzat
ekintza
gehiago



Enara Azkue

Oraingo alkateak
egin duen
guztiaren kontrakoa



Mireia Centeno

Larretxoak
igotzeko
igogailu bat



Saioa Souza

Txorientzako erreserba bat
egino nuke
humedalian eta Beduan
eta baita ere
depuradora bat ipini



Ana Epelde

Haurrentzat,
kirolarentzat eta
kulturarentzat leku
publiko gehiagotan
inbertitzea eta ez
beraiei potsikoak
beteko dizkien negozio
ilegalean



Amaia Olasagasti

Kirol
portuaren obrak
gelditu.....
betirako



Jabi Leizaola

Gazteak kirola
egiteko lekuak
sortu



Esperanza Sara

Kirol portua ez eraiki
eta gazteentzako
babes ofizialeko
etxebizitzak
bultzatu

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



orain beheko plazan!

Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 143395

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezarreta, 6

Tel. 861078

Arte Taldekoekin Hamaika urtetan egindakoez aritu gara

Oxforren erakusketa bat antolatzen denean atetik barrura begiratu ere egin gabe pasatzen dira batzuk kalean aurrera, paso egiten dute. Sartzen direnen artean ere aurpegi desberdinak ikusten dira irteerakoan. Batzuk oso gustora, beste batzuk epelago, eta badaude artea adarjotze bat dela diotenak ere. Arrazoia ezingo diogu inori eman, eritzi eta gustuetan dena baita libre, baina badago gauza bat argi dagoena: tristeena probatzeko aukerarik ez izatea litzateke. Eta Zumaian artea dastatzeko aukera badugu Arte Taldeari esker izaten da normalean. Urte dezente pasatu da Taldea martxan jarri zutenetik eta antolatuturiko ekintza eta izan dituzten gorabeherak mordoa dira dagoeneko. Gogoratu dituztenak jaso ditugu hemen.

87-ko udan sortu zen Arte Taldea. Inpernupe elkarteak erakusketa bat egin nahi zuen herriko artisau eta artistekin, eta antolaketa lanak elkartu zuen lagun kuadrilak, antzeko interesak zituztela eta primeran

konpondu zirela ikusirik, herrian arteari mugimendu pixkat emango liokeen talde bat sortzea erabaki zuen.

Ordutik hona jende desberdin asko pasatu da Taldetik, hau irekia da bertara hurbildu nahi duen guztiarentzat, baina zazpi-zortzi dira urteetan zehar bueltaka fijo xamar ibili direnak: Ander Hormazuri, Dani Carballo, Keixeta, Ismael Manterola, Jon Manzidor, Arantza Santamaria eta Mariasun Zearreta.

Urtean zehar bakoitza bere aldetik ibili ondoren udan elkartu ohi dira Arte Talde bezala aritzeko.

Burutzen dituzten egintzei dagokienez udaro bost erakusketa, arte tailerrak eta hurrengo taberna arte fijo antolatzen dituzte. Egile ezagun batena (azkena Zumeta), Ismaelek ekarritako Arte Ederretako ikasleena, egile kontsagratu bati egindako omenaldi modukoa (azkena Egigurendarrak), eta beste biak egile zumaiarrenak izan ohi dira erakusketak, bat Forondan eta lau Oxforren. Eta ohizko eskema litzatekeen honez gain bestelakoak ere antolatu izan dituzte. Esaterako pasa den udan, taldearen 10. urteurrena zela eta antzerkia, grafitia, txalaparta, errezi-taldi eta baletarekin kofrai plazan egin zen festa.

Hala ere horrelako martxa ez dute hasieratik eraman. 91. urtea klabea izan zela diote gurekin bildu direnak. Ordurarte urtean pare bat erakusketa egiten bazituzten urte honetan hasi ziren oraingo eskemarekin funtzionatzen, ordurarte erakusketa kolektiboak egitera mugatzen baziren urte hartan egin zituzten beren lehen instalazioak (denen artean erakustokia gai baten inguruan janztea), urari buruzkoa eta 3 koloreei buruzkoa, eta



Argazkia: Aitor Bayo

Ander, Txiki eta Aran.

urte honetan egin zuten plaiko eskulturena, Arantzarentzat "orain arteko politenetakoa". Plaian bildutako materialarekin, harri, alga eta egurrekin, eskulturak egin eta gero hantxe egin zuten bazkaria, itsasoak nola eramaten zituen begira. Arratsaldean berriro egin zituzten itsasoak berriro eraman zitzen.

Burutzen dituzten egintzei dagokienez udaro bost erakusketa, arte tailerrak eta hurrengo taberna arte fijo antolatzen dituzte.

Arteak sortzen duen polemika eta gisako gaien inguruan dezente kostatzen zaie ados jartzea, eta data zehatzen inguruan ere beste horrenbeste. Taldearen arrakasta handienaz galdetu diegunean ordea aho batez erantzun digute: herriko jendea artera gehixeago hurbildu eta ohitu izana da politena. Esposizioetara sartu eta ikusitakoaz hitz egin errazago egiten

dela ikusten dute. "Denborak eta lanak ekarri duen istori bat da hau" dio Anderrek. Oxforrera sartzen den jendetza horrelako erakusketatan normalean sartzen dena baino haundiagoa omen da, eta gainerako ekintzei dagokienean ere gustora daude jendearen harrerarekin. Batzutan hasten omen zaizkie 'koadroa aldrebes jarri zu!' eta horrelakoekin, baina ez die molestutzen. "Onartu beharra dago artea ez dela jende guztiarentzat" dio Txikik "baina guk eskeintzen deguna aukera bat da, besterik ez".

Ekitalde arrakastatsu bat seinalatzerakoan Balentziagaren erakusketa aipatzen dute, 94-koa. "Kolekzio pribatu bat zen, nahikoa garrantzitsua, eta ia koadro denak atera eta Forondara ekartzea lortu genuen" esplikatu du Anderrek. "Erakusketa bat antolatzea ematen duna baino lan fuertegoa da. Kontaktoak behar dituzu, dirua (hau da zailena) papelak konpondu e.a." gaineratzen du. Oteiza ere etorri omen zen erakusketa ikustera, Balentziagarekin ameriketan ibilia eta haren laguna baitzen.

"Jende aldetik arrakasta gehien duena 'hurrengo taberna arte' da tabernak jendez beteta egoten dira eta" botatzen du Txikik. Udalak dirulaguntzarik eman nahi ez zien urte batean, Oxforreko erakusketak zituztela eta, tabernatan dirua jasotzeko antolatu zuten lehenengoa. Ez zuten kasik ezer jaso, baina ekitaldiak izan zuen oihartzuna ikusita urtero egitea erabaki zuten. "Gainera, hamairu-hamalau tabernak parte hartzen dutenez hamairu-hamalau pertsonaren lanak aurkezteko aukera ematen digu, erakusketa normal batean bostetik gora gehiegi direnean" azaltzen digu Arantzak.

Paoleko eskultur lehiaketarena da aipatu nahi izan duten beste kontu bat. Urte batzutan artelan publikoetarako lehiaketak nahikoa zikin eta oso aldrebes egin izan dira, partaidetza itxiarekin, gaizki egindako oinarriekin eta epaile bezala arteaz tutik ere ez dakiten politiko jendea jarrita. Itzurungo eskulturarekin ere horrelaxe

egin zen eta kejarren aritu ziren taldekoak udaletxe nahiz beste instanzietan. Arrazoia eman zieten udaletxean, eta hurrengo lehiaketan, paoleko eskulturarenean beren esku utzi zuten oinarriak egitea. Nahikoa ezohizkoa izan behar du honek, estatu mailako aldizkari espezializatuek kasua jasotzeraino, eta zorionak eman zizkieten alde guztietatik.

**"Jende aldetik
arrakasta gehien
duena 'hurrengo
taberna arte' da**

Lehiaketaren istori honetan oso ondo portatu zela aitortzen dute, baina badute kejarik ere udalarentzat. Ematen dien diru apurra eskuratzeko atzetik ibili beharra eta beren

lanarekiko inolako interesik ez izatea aipatzen dituzte, baina urte guztian funtzionatuko lukeen zentru bat, Zarauzko Sanz Enea edo Torre Luzea moduko bat, da beren eskari nagusia. Oxforrerako ba omen zuten proiektu bat lenengo pisuan erakustokia, bigarrean tailerrak eta hirugarrena lantoki bezala artistei alokatzea aurreikusten zituena, baina udalak ez zien kasurik ere egin. Beti izan dituzte arazoak lokalaren kontuarekin. Hala ere garbi utzi nahi izan dute Miriam primeran portatzen dela, politikoak direla eskasagoak.

Datorren udaran egin asmo dituztenei dituztenei dagokionez audiobisualen inguruan zerbait egitearen ideia darabilte buruan. Eztabaida fasean dago oraindik ordea. Batzuk 10. urterena muga bezala hartuaz aldaketa bat egin nahi dute, betiko eskema bazterrean utzi eta denboran motzagoa baina intentsoagoa litzatekeen zerbait egin. Besteek ez diote abantailarik ikusten aldaketa horri. "Gure artean kezka desberdinak ditugu, baina beti konpondu izan gara eta gauzak aurrera atera" dio Anderrek 'polemika'-ren aurrean.

Uda heltzen denean ikusiko dugu azkenean egin dutena merezi izaten du ikustera joatea. ◀ **ANTXOKA AGIRRE**

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA

TABERNA
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57


gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 860959

Gure txokoa
• taberna •
kaxuelita eta pintxo ezberdinak
San Pedro kalea

English School
Harvest


San Jose, 11 bis Tel. 143334

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



1



2

ihauterriak

argazkitan



Batzuek
garraio bide
bezala
trainerua
aukeratu
zuten
bitartean ...
beste
batzuk
poniak
nahiago
izan
zituzten.



San Sebastian eguna bukatu zela konturatu
ez zen koadrilarik ere bazen



Joxe Bittor de
Ubriek belarria
moztea merezi zuen.
Horretarako
Atletikeko potok
bazuen nahiko estilo



Alai auzategia, 2 Tel 143324

inhauterriak

argazkitan

Eusko labeldun emakumea eta emakume bionikoa



Zein nahi dezute engainatu?



Pailazo melankolicoei inkisidoreek kartilla irakurri zieten



Erribera kalea Tel. 861523



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

Iñigo Perez zumaiarra bigarren, XIV. krosean

Kamel Ziani eta Amaia Insausti izan ziren irabazleak

Kamen Ziani oriotarra gizonetzkoen proban eta Olaberriako Amaia Insausti emakumezkoen lasterketan dira 1998ko XIV. Herri Kroseko garaileak. Eguraldi kaxkarra suertatu arren, jendetza handia animatu zen kros



honetan parte hartzera eta azkenean, ia 450 korrikalari hurbildu ziren.

Antolatzaileen asmoa Zumaian 500 lasterkari biltzea zen, baina azkenean ez da posible izan eta kopuru horretan geratu da. Kontuan hartuta zer nolako eguraldi eskasa egin zuen, ez da kopuru ttikia irteera puntuan egon zirenak.

Gizonetzkoen proban, 60 zumaiar aritu dira eta hemen Iñigo Perezen lana txalotu beharra dago. Korrikalari hau sailkapen nagusian bigarren postuan geratu zen eta honenbestez, urte honetan Mariano Sanchez de la Flor-ek bigarren postuarekin konformatu beharra izango du.

Iñigo Perez, triatloiean aritutakoa da, korrika lasterketa askotan ere parte hartu izan du, beti ere aurreko postuetan sailkatuz. Zumaiaiko karrera honetan, Kamel Ziani irabazleak

minutu pasatxoko aldea atera zion; hirugarren tokian, Manu Hurtado beasaindarra sailkatu zen.

Irabazlea pozik azaltzen zen garaipenarekin eta adierazi zuenez lasterketa irabaztea espero

zuen. Oriotarra buru belarri maratoiean sartuta dago "eta arrazoi honegatik ez nuen pentsatzen kros honetara etortzea, baina azkenean etorri eta irabaztea lortu dut". Dena den, berak duen errekorra apurtzea ez du lortu aurtengo edizio honetan.

Emakumezkoen lasterketan berriz, 18 zumaiarrek parte hartu dute eta lehen hirurak Arritxu Urbieta, Eli Agirrezabal eta Rosa Prol izan dira. Lasterketa berriz, Amaia Insaustik irabazi zuen, Usoa Sorazu getariarra eta Alaitz Etxeberria azpeitiarraren aurretik. Arritxu Urbieta, lehen emakume zumaiarra, 22. postuan geratu zen.

Beteranoetan, lehen zumaiarra Julian Igual izan genuen 92. postuan, 39 minutu eta 43 segundorekin, Vicente Villar eta Ernesto Grijalbaren aurretik

◀ IGOR URANGA.



Moussin Akrikez gaztea bikain ibili zen. J. Bernal

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

ITZURUN
KIROLAK

Amaiako plaza, 13 Tel. 860758

ileapaindegia
I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

Joseba Ossa
ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana
ingelese . frantsesa

Tel./Faxa: 148306
E-mail: bakun@encomix.es



Gero eta zumaiair gehiagok hartzen dute parte.
J. Bernal

Gizonezkoen sailkapena

1- Ziani, Kamel	31:48
2- Perez, Iñigo	33:01
3- Hurtado, Manu	33:05
4- Garin, Juan Mari	33:07
5- Iturralde, Xabier	33:09
6- Garciñuno, Agustin	33:30
7- Urdanpilleta, Asier	33:50
8- Aldai, Juan	33:51
9- Manso, Jesus Manuel	33:54
10- Blanco, Jose Antonio	34:40

Zumaiarrak

2- Perez, Iñigo	33:01
14- Sanchez, Mariano	35:02
30- Alvaro, Jesus Mari	36:26
39- Lopez, Juan Manuel	36:37
46- Akrikez, Moussin	36:47
62- Ulazia, Jon	38:01
63- Sasiain, Mikel	38:03
64- Santamaria, Peio	38:06
72- Irureta, Xabier	38:35
85- Osa, Jaime	39:24
89- Amilibia, Egoitz	39:34
92- Igual, Julian	39:43
97- Alkorta, Juan Ignacio	39:53
98- Sasiain, Jon	39:54
103- Lopetegi, Jose Mari	40:03
106- Hidalgo, Jose Maria	40:08

123- Alkorta, Iñigo	41:02
125- Egiguren, Ramon	41:08
130- Osa, Luis	41:28
133- Villar, Vicente	41:33
139- Elizalde, Xabier	41:44
151- Lopez, Juan	42:23
152- Noriega, Patxi	42:29
154- Grijalba, Ernesto	42:37
155- Moreno, Carlos	42:37
158- Urbieta, Eneko	42:40
160- Aizpurua, Jose Luis	42:44
169- Otaño, Ramon	43:19
171- Egiguren, Agustin	43:20
188- Jimenez, Teodoro	43:47
189- Zumeaga, Jose Agustin	43:48
199- Olaizola, Jesus Maria	44:20
203- Aramendi, Miguel	44:25
206- Esteibar, Oier	44:41
207- Juan Mari Juez	44:48
220- Jimenez, Peio	45:46
227- Romatet, Joseba	45:58
232- Albizu, Igor	46:01
238- Sarasua, Mikel	46:27
239- Kerejeta, Miguel	46:31
247- Albizu, Joxe Mari	47:29
253- Aizpurua, Iñaki	47:57
254- Martija, Rafael	48:04
255- Aldai, Iñigo	48:14

257- Iribar, Joseba	48:21
258- Lazkano, Jabier	48:24
259- Etxabe, Jose M ^a	48:27
266- Rivas, Ramon	49:17
267- Agirrezabalaga, Jose Mari	49:20
271- Aizpurua, Eneka	49:36
276- Garcia, Abundio	50:06
280- Arano, Fernando	50:26
289- Aizpurua, Julen	51:05
292- Balenziaga, Karlos	51:14
300- Azkue, Ibon	52:21
308- Aranberri, Miguel Angel	52:36
311- Ostolaza, Iñaki	53:11
313- Caporossi, Bernard	53:36
314- Azpeitia, Esteban	54:02
317- Gorostola, Joakin	55:26



Irteera Amaiaiko plazan izan zen. J. Bernal



LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK

Erribera, 1 Tel. 860375

*Jesuskoa
Tatetxea*



Tel. 861739
OIKIA
ZUMAIÁ



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

Emakumezkoen sailkapena

1- Insausti, Amaia	20:55
2- Sorazu, Usoa	21:15
3- Etxeberria, Alaitz	21:23
4- Civicos, Maite	23:04
5- Zeberio, Onintza	23:30
6- Maillo, Elena	23:40
7- Argaiz, Aintzane	23:42
8- Arriola, Maria Pilar	24:11
9- Rodriguez, Sara	24:18
10- Luena, Rosa Mari	24:30



Zumaiarrak

22- Urbietta, Arritxu	26:58
25- Agirrezabal, Elisa	27:36
26- Prol, Rosa	27:55
28- Larrañaga, Mila	28:06
31- Escalante, Rebeca	28:19
32- Garcia, Johanna	28:31
39- Manterola, Maria Pilar	29:45
42- Vicente, Belen	30:15
43- Mendizabal, Ana Delia	30:32
44- Egaña, Ana	30:33
47- Etxeberria, Itziar	30:42
50- Azkue, Arritxu	31:13
51- Ibarbia, Leoni	31:13
53- Apestegi, Elena	32:24
55- Egaña, Arantxa	32:20
57- Zuloaga, Itziar	32:55
60- Muruaga, Natalia	34:35
63- Aizpurua, Maria Jose	35:39

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 861853

 taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20


KABI
TABERNA - ZUMAIARRAK
Tel. 143379


kalari
J
A
T
E
T
X
E
A
* Eguneroko bazkaria
* Pintxo eta bokatak
* Koadrilentzako menu bereziak
* Kazuelitak eta plater konbinatuak
Erribera kalea, 16
Tel. 862517


serigrafia
· kamisetak
· txiskeroak
· paperezko poltsak
Tel. 860569
Baltasar Etxabe, 7

San Pedro saria pala txapelketa martxan da.

Laugarren urtez San Pedro Saria pala txapelketa berriro jokoan dago. Iaz bezala, emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako txapelketa ezberdinak ditugu jokoan. Gizonezkoak gomazko pilotaz arituko dira eta

gutzira, 23 bikotek parte hartzen dute. Emakumezkoetan berriz, bederatzi bikote daude lehian. Aurreko urtean baino bikote gutxiago daude baina beharbada, kalitatea igo egin da.



Emakumezko bikoteak	A taldea	B taldea	D taldea	E taldea
K. Sanchez - D.Betondo	Arratibel Anaiak	Ostolaza Anaiak	Elustondo - X.Uranga	Alkorta - Urbieta
M.Aizpurua - A.Egaña	Marcos - J.Leiza	Uranga Anaiak	Gorostola - Aizpurua	Unanue - Unanue
O.Gabarain - B.Gabarain	Prieto - Galarraga	Grela - Buenetxea	Egaña - Martin	Zendoia - Azkune
P.Odriozola - A.Mendizabal	Agirre - Zuazobide	Serna - Albizu	Lazkano - Aizpurua	Mofli - Kandido
I.Sorazu - M.Ibarguren	Urrutia - Albizu	Arratibel - Irureta	Bilbao - Azkue	Segurola - Arratibel
A.Salegi - A.Loyola	Lopez Anaiak	Amilibia - Esteibar	Ulacia - A.Leiza	
M.J.Etxeberria - Begoña				
L.Zearreta - I.Zearreta				
I.Gonzalez - M.Etxabe				

Plaieroetako bigarren fasea bukatzeaz

Hiru Ezkur taldea, txapelketa honetako faborito

Plaieroetako txapelketa poliki-poliki bere fase interesgarrienean sartzen ari da. Liga eta Kopako faseak bukatzeaz daudenean, gauzak pixkat argitu dira eta dagoeneko talde batzuk nabarmendu dira. Ligako txapelketari dagokionez, Hiru Ezkur talde gaztea faborito nagusia bilakatu da bigarren faseko norgehiagoka guztiak irabazi ostean.

Kopan berriz, Txikixa Pub azaltzen da talde sendoenetakoa bezala, baina beste batzuk ere ez dute atzean geratu nahi, hauxe da Ipurbeltz

Gaztañaga, Pub Eguzki eta Ekin Buitraker-en kasuak. Bigarren fase hau, martxoaren 21ean amaituko da.

Bitartean, Zalla Erretegia Zumaiako taldea Zarauzko plaierotako txapelketan kanporatua izateko zorian dago. Partidu bakarra geratzen da bigarren fasea amaitzeko, eta azken partidua irabazteaz gain, beste neurketa batzuetako emaitzen zain egon beharko litzateke final erdietara sartu ahal izateko. Aurtengoan beraz, oso zail dute zumaiarrek muturra final aurrekoetan sartzeko.

Kopa			
Mendi Ondo	7	Pub Eguzki	7
Ekin Buitraker	6	Inpernupe	2
Siete Mares	2	Ekin Buitraker	11
Inpernupe	6	Txikixa Pub	7
Mendi Ondo	12	Basusta Erretegia	4
Mendi Ondo	4	Txikixa Pub	1
Ipurbeltz Gaztañaga	5	Pub Eguzki	5
Inpernupe	3	Mendi Ondo	2
Siete Mares	1	Txikixa Pub	13
Basusta Erretegia	5	Ipurbeltz Gaztañaga	7
Ekin Buitraker	1	Pub Eguzki	0

Liga			
Gesem	0	Hiru Ezkur	4
Txakur Amorratuak	2	Axier Kiroiak	2
Kabi Genelek	2	Basterrikalde	4
Gesem	0	Kabi Genelek	6
Txakur Amorratuak	1	Hiru Ezkur	2

LIBRERIA AIZPURUA
R U D E N D A
opariak
Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569

LEIZE
taberna
Juan Belmonte, 6
Tel. 860415

Loitz
* Eskola eta bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak
Erribera, 4
Tel./Faxa: 143422

Zaborrak, lehorrera !!

Hirugarren urtez jarraian, martxoaren lehen astetik Itsas Garbia kanpaina hasi da Euskal Herriko kostaldeko herrietan, "zaborrak lehorrera" lelopean. Euskadiko Itsas Gaztediak eta Urola Kosta Udal Elkarteko Ingurugiro tailer-eskola izan dira kanpaina hau antolatu eta burutzeaz ardura direnak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Helburua da gure arrantzaleek untzian sorturiko zaborrak itsasora ez botatzea. Kanpaina honek emaitza onak eman zituen iaz, baina aurten aurrerapauso handiagoak ematea espero da.

Izan ere, aurten arrantzaleei behin bakarrik banatuko zaizkie zabor poltsak. Hortik aurrera, herri bakoitzeko kofradia izango da zorroak erosteaz arduratuko dena. Iaz eduki-nontziak banatu zitzaizkien bapore guztiei, eta gero astero zabor poltsak ematen zitzaizkien. Aurten ez da horrelakorik egingo. Edukinontzia badute, eta zabor poltsak lortzeaz beraiek arduratu beharko dira, kofradietan eskatuz. Neurri honekin arrantzaleek arazo honen konponketa euren arduratzat hartzea lortu nahi da. Kanpaina hau berdelaren eta antxoaren arrantzak iraun bitartean burutuko da.

Arrantzale eta patroiekin biltzeaz gain, kanpainako arduradunak Pasaiako eskolan ere izan dira etorkizunean marinela izango direnak sentsibilizatu nahirik.

Kanpaina honen helburua itsasoa garbi mantendu behar dugula ulertaraztea da. Urtean milaka tona zabor botatzen ditugu itsasora, horrek sortzen dituen kalteez konturatu gabe. Plastikoz, metalez edo beiraz eginiko ontziek urte mordo eman dezakete itsasoan desagertu baino lehen. Plastikozko zorroek eta sareek izugarrizko kalteak eragiten dituzte bizidunengan, batez ere ugaztun handiengan eta dortokengan. Guztiok dugu buruan Santanderren hilik agerturiko balearen irudia. Bere barrena plastikoz bete zuen, eta horrek itota hil zen.

Gure arrantzaleek botatzen dutena ez da zabor horren zatirik garrantzitsuena, ezta gutxiago ere. Ibaien bidez lurretik iristen denak askoz ere kalte handiagoak sortzen ditu. Itsasoak mugarik ez duela iruditzen zaigu, baina ez da horrela. Hondoan badu, eta

pixkanaka zaborra pilatzen ari da nahiz eta guk ezin ikusi gure begiekin. Kontrolik gabeko zabortegi erraldoia bihurtzen ari gara itsasoa. Eta horrek eragin zuzena du bertan bizi diren bizidunengan. Kutsaduragatik hiltzeaz gain, arrain mota askok bizilekua aldatu behar izan du. Bide tradizionalak alde batera utzi eta batetik bestera joateko bide berriak bilatu behar izan dituzte zenbait kasutan -Mediterraneoan adibidez-. Honek eragin zuzena du arrantzaleengan, arrantza galtzeko arriskua baitute.

Arrantzaleak dira arazo honetan lehen kaltetuak, eta horregatik beraiek eman behar dute lehen pausoa. Inork ez du bere baratza zaborrez betetzen. Gainera, ez du inolako lanik ematen zaborra itsasora bota beharrean eduki-nontzian sartzeak, lehorrean edo gure etxean egiten dugun bezala. Ohitura kontua da. ◀ **GORKA ZABALETA**

Maiaur
plastokia




Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza Tel. 861440

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

ILE APAINDEGIA

herea
Uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 862342



GILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda Aldizkariak
Fotokopiak Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe, 7
Tel. 143191

martxoak

ANTZERKIA.

Martxoak 8an Emakume langilearen eguna zela eta . **LAMIAK** antzezlanana **ADOS** taldearen eskutik.

- Martxoaren 13an, gaueko 10etan,
Aita Mari aretoan

ZINE FORUM.

"Box of moonlight."(1996)

Zuz: Tom DiCillo

Akt: John Turturro, Sam Rockwell,
Catherine Keener

- Martxoak 26, gaueko 10.15etan

UDABERRI FESTA.

Ludotekak antolatuta

- Martxoaren 28an,
Gernikako parkean

ZUMAIA 650 HITZALDI ZIKLOA

Juan bautista Olaechea Jaunak:

"ZUMAIA ETA ORREGAREN
LOTURA"

- Martxoaren 27an, 7etan
Foronda Kultur Etxean

SENDABELAR IKASTAROA.

Inguruko landare arruntenak eta bakoitzaren berezitasunak ezagutzea da helburu nagusia, naturarekiko errespeto eta maitasuna bultzatuz. Mendi irteerak egingo dira eta diapositiba emanaldiak ere eskeiniko dira. Jasotako landareekin ukendu, olioak, enplasteak, e.a. egiteko aukera ere izago da, barneko nahiz kanpoko aplikazioetarako.

- Martxoaren 3tik 26ra
(astearte eta ostegunetan, 16.00etatik
18.00etara. Matrikula 2.000 pezeta.)
Lanbide Hastapeneko lokaletan,(uxategian)
Izenematea: **Foronda Kultur Etxean**

GAZTEENTZAT.

Magia tailerra

- Martxoaren 26 eta 27
18.00etatik, 20.00etara

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

PINTURA TAILERRA**LIBURUTEGIA**

Helduentzat

- Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta
16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

- Astelehenetik ostiralera, 16.00 -
20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

- Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Helduen liburutegian.

- Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta
16.30 - 19.30

ONCE
& ONCE

JOXE
MANUEL

Kupoi batzuk
erosi eta ...

ZORTE ON !!

Tel. 862347 - 861001



**ZUMAIA
OPTIKA**

Txomin Agirre kaia, 1

Tel. 143057

Denda aldatzeagatik LIKIDAZIOA



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

Paki 

belardenda

OSASUN NATURALA

Erribera kalea, 2 Tel. 143156 - 862244

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketeta eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

ZINE FORUM

neguko zikloa

Martxoak 26

Box of moonlight (1996)

Zuz: Tom DiCillo
Akt: John Turturro, Sam Rockwell, Catherine Keener.



Al Fountain (John Turturro), herri txiki batera lan egitera joan den hiritar bat da. Familia arazoak eta bere langileekin ezinikusiak dituen inženiero honek bisio arraro batzuk ditu. Bere lana ezerezean geratzean, kotxe bat alokatu eta bere haurtzaroko lekuak bixitazteari ekiten dio. Basoan bizi den gazte bat ezagutzean Al-en bizitza guztiz aldatuko da.

Box of moonlight Tom DiCilloren hirugarren filmea da. Jim Jarmusch-en fotografia zuzendaria izanarekin hartu zuen fama DiCillok, baina horretaz gain, aktorea, idazlea, antzerkigilea eta zine zuzendaria da. 1991n egin zuen debuta *Johnny Suede* filmearekin, eta ondorengo lanarekin, *Vivir rodando* bikainarekin lortu zuen arrakasta. Jarmusch-en zinean gertatu ohi den bezala, gizarte honetan lekua aurkitzen ez duten jendeak du garrantzia DiCilloren zinean.


Zuzendaria aipatu bada ere, ezin da ahaztu aktoreen lana. Sam Rockwell, gazte ezkizofrenikoarena egiten ederki dago, baina John Turturro da filme honetako "heroia". Parte hartu zuen filme denetan demonstratu izan du Turturrok bere belaunaldiko aktorerik onena dela. Filme horien artean, Joel Coen-en *Barton Fink*, Robert Redford-en *Quiz show* eta Spike Lee-ren *Do the right thing* aurkitzen dira. Hitz gutxitan esanda: *Box of moonlight*, amerikar zine independientearen beste altxor bat.

Oharra: filme hau jatorrizko bertsiotzat azpititulatua eskeiniko da.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz


Bizitza lanbide
Robinson Crusoe
Europarrak
Bizitzaren hizkuntza
Chaplin (biografia)



Cesare Pavese
Daniel Defoe
Henry James
Jon Sarasua
Mikel Asurmendi

Gaztelerez

Un cuento largo
Guillermo de Inglaterra
Viajera
No ser una silla
Elogio del patinador



Gunter Grass
Chretien de Troyes
Diana Gabaldón
Askoren artean
Juan Manuel de Prada

Haurrak/Gaztetxoak

Nikolas txikiren komeriak
Peppi hegoaldeko itsasoetan
Ipuin beldurgarriak 1
Sardina latakoko sirena
Gure poesia



Gosciny Sempé
Astrid Lindgren
G. de Maupassant
Gudrun Pausewang
Antologia

BELARDENDA
SIWA



Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

gidatzeko baimen guztiak

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416





Karmen Balenziaga saritua

Hilabete hasiera hontan urtero izaten den euskal aktoreen festa ospatu zen. Bertan zine, telebista eta antzerkiko aktore onenak aukeratzen dira. Sari banaketa hontan ez ziren zumaiarrak falta izan. Alde batetik Elena Irureta jaialdia aurkezten egon zen, eta bikain gainera; bestetik Karmen Balenziaga ere taula gainean egon zen bitzta guztiko lanengatik "Besarkada" saria jasoz. Zorionak biei, eta bereziki Karmeni.

EMAKUME LANGILEAREN EGUNA

Martxoaren 8, Emakume langilearen eguna zela eta, zenbait ekitaldi antolatatu ziren gure herrian. Udaleko Kultura sailak antolatutako ekitaldiak Deepa Mehta zuzendari indiarren "Fuego" filmaren pantailaratzea, eta Ados antzerki taldearen "Lamiak" antzezlaren taularatzea izan ziren. Bestetik Inpernupe Kultur elkarteak emakumeen afari bat eta anorexia eta bulimia gaitzat harturiko hitzaldi bat eskeini ditu.

ATXANTATU Bilborocken

Badirudi Atxantatuko mutilak zorte onekoak direla. Orain hilabete gutxi Euskadi Gazteko maketa lehiaketako entzuleen saria irabazi, eta ondorioz konpakto batean parte hartu bazuten, orain Bilborock lehiaketako finalerako hautatu dituzte. Atxantatuk rock gogorreko atalean hartzen du parte, eta ezin esan ez dutela lehiaketa irabazteko aukerarik. Kontzertua Apirilaren 29an izango da. Orrialde hauetatik "jebiato" kuadrila hori animatzea nahi genuke, eta bereziki gure lankidea den Eneko. Aupa mutilak!!



Liburutegia itxita

Martxoaren erdi aldera, kultur etxean egingo diren obra batzuk direla eta, liburutegia itxi egingo da. Hori bai, beheko solairuan "zerbitzu minimotako" gela bat egongo da. Bertan mailegurako liburu batzuk, kontsultarako entziklopedia bat eta egunkari eta aldizkari batzuk egongo dira. Aulki pare bat besterik egongo ez denez, ez da ikasketa gelarik egongo; hori dela eta lan egiteko gela baten bila hasi beharko duzue. Internet zerbitzua ohizko eran erabilgarria izango dela itxaropena badago. Liburutegiak itxiko diren eguna eta zerbitzuari dagizkion xehetasunak aldeaz aurretik azalduko dira.

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



Artadi auzoa
Tel. 862189

Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g
20740 IRAETA - ZESTOA

Tel. 148082
Faxa: 148124
78 postakutxa

Rock 'n' Roll circus

Itxuraren garaian bizi gara, eta musika belarrietatik sartzen zaigun arren, asko da begietatik sartzen zaiguna ere, batez ere pop, rock eta gazte musikan. Deitu estetika, looka, moda, itxura edo nahi den bezala.

Identitate arazoa izango da, janzkera bidez bakoitza bere nortasuna azpimarratze hori; eta lider erlijioso edo politiko miresgarririk ez denean rock izarrak hartzen dira eredutzat. Horrela indibiduoak gara baina baita talde bateko partaide ere (punk, Spice Girls fan club edo txuri urdin txuri urdin maitea), eta hau pertsonen behar bat dela uste dut.

Noski honetaz baliatzen dira zenbait talde eta artista, adibidez azkenaldiko talde sasipunk hauek (Rancid, Green Day eta horrelakoak) garai bateko estetika punka berenganatzen dute, baina izpiritua zeharo ahaztuz. Honekin batera eta 70eko punk hoiek gogoratuz irudi bat: Sid Vicious granoak irtetzeko, aurpegian mantekilla ematen... kutrearen estetika eta adolezente erradikalaren aldarrikapen bat, baina estetika berriro ere: sistemaren aurka aknea. Gero gainera, punkiak Big Ben-arekin batera Londreseko postaletan ohizko izatera pasa ziren. Folklorikoak ia-ia; kabina gorriak, autobus gorriak eta punkiak koloriñetan.

Beste kasu bat, Talking Heads: "bere imajina imajinik ezean zetzan", pertsona normal-normalak ziruditen, edozein Peter edo edozein Peggy, ez rock star-az ulertzen dena. Baina hain jende inteligenteak ez ditu gauza hoiek aidean uzten eta "imajinik ez" hori ongi kalkulaturiko imajin bat zen. "Rockeroak ile luzea eta arropa beltza; ba guk ile motza eta Lacoste nikiak".

Garai edo estilo bat aipatzeak segituan ekartzen digu gogora beren estetika: hippiak, heavy klasikoa, glam rocka, raperoak, skinak, rastak...

Gaur egun berriz dena da post, dena da neo, edo retro. Inor ez da osoki talde bateko partaide, dena dago nahasiagoa, eta edozein pijok/ak egiten du tattoo bat ipurdian edo piercing bat zilborrean, eta ongi eiten du gainera. Skater-en arropak, grunge-en perillak, hardcorea, Spice Girls, Backstreet Boys... Beste batzuk rock star-aren papera urrunegi eramaten dute eta Michael Jackson zoratu egin zaigu eta uste du ez dakit



ze errepublikako enbajadorea dela. Keith Richards berriz 70 urtetako bidean eta bere buruaren karikatura negargarri bat dela konturatu gabe. Garai batean ezinezkoak ziren hibridoak orain listetako lehen postuetan daude: Prodigy-ren technipunka, Negu Gorriak-en porrusalda. U2ek rock espektakulua kritikatzan duen rock espektakulua egiten du antzerki batean bezala. Eta azkenengoa! Mecano berriro elkartu dira, eta beren azken bideoklipean beren buruaren parodia umoretsu bat egitera atrebitzen dira; Nacho Cano kalamidadea bere ego-starari barre egiten,... ez nuen uste hainbeste umore zuenik. Aupa Mecano! Batzutan harrিতuta geratzen gara. ◀

JON MANZISIDOR

xirula

Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

ZALLA
Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387

Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI A MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



Elurra frontoian! Zorionez garai hontan ez zegoen San Pedro pala txapelketa martxan, bestela a ze hotza pasako zutena partehartzaileek, elurretan jokatu eta frontoian teilatuturik gabe. Ez zuten ez, elurra teilatuan bezelako kantarik abestuko garai hortako pelotariak! Ikus dezakezue San Juan Egoitza ere ez dela oraingoa, dexentez txikiagoa baitzen orduan.



BASUSTA JATETXEA emandako afaria **Imanol Etxabe** eta **Itziar Manzisidorentza** izan da. Askok asmatu zenuen bezala, bakeroak **Aitor Azpitarte** "Apix" eta **Jokin Urkidi** ziren.

Tripa-festa lehiaketa

Aldizkariarekin batera gure lehiaketa ere berritu dugu; izan ere, aurrerantzean 2 pertsonentzako afariak zozketatuko ditugu.



Zein da argazkiko Superwoman?

Gutxienez baten izena ematen diguzuenon artean **JESUSKOA JATETXEA** emandako afaria zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoian edota Forondan uztea, martxoaren 26a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!



Erribera kalea, 2
Tel. 861125



ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169



Tel. 143278

motxjan hi!



zein: Jesus Mari Aizpurua
zer: Elektrizista
nola: Poti

Ze izen gustatuko litzaizuke edukitzea?

Lukas

Zumaiako txoko bat

Nikol -Enea

Zer egingo zenuke ohe borobil batean?

Auskalo

Zer iruditzen zaizkizu Zumaiian ematen diren aldaketak?

Barbaridade bat

Zergaitik deitzen dizute Lukas?

Apolok deitzen ditelako

Zer da subastaua?

Joko bat

Zer egingo zenuke orduero?

Jan

Zerk ematen dizu horrelako elektrizitatea?

Kabliak

Noizko kotxea?

Hemendik hamar urtera

Zein da Pereztroika

Antxoka

Bazkari bat prestatuko bazenake zer egingo zenuke?

Paella eta txibiak

Piropo bat

Guapa!

Amets bat

Bat ez asko

agurrak

Sinéad, espero det laister jango degula gure lehen papila elkarrekin. Alba.

Luis neskaz jantzita ere ez dek ligatzen. B.T.K.

Tarpin, 20 urtean kaña botata eduki eta azkenean arraiak heldu zioz amuari. (kontuz Paparazziekin)



ITZIAR. Telefonoa: 19 93 89

TXINDURRI ITURRI
SAGARDOTEGIA
ERAKUSKETA




Hello friends!

This is Michael Morris, an English teacher.

Badakizue munduan ibiltzeko ezinbestekoa dela ingelesa.

Horregatik egin dut hiztegi hau, Euskal Herria eta mundua lotzeko ezinbesteko tresna.

Connecting Basques and the world.



**Euskara-Ingelesa ●
Ingelesa-Euskara
Hiztegia:**

1.200 orri ●

**80.000 hitz ●
eta adiera**

**Eranskin ●
gramatikal zabala**

**Irudiak, mapak ●
eta bestelako
ikasmateriala**

**Ingalaterrako ●
nahiz EEBBetako
ingelesa
ahoskatzeko gidak**

**1. alearekin
tapak doan**

**Otsailaren 28tik aurrera,
asteazken eta larunbatetan 225 pzta. + **Egunkaria****

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



NISSAN

MOTOR KIDE



Orain, kotxea erosteko orduan
zumaiarrok baduzue beste aukera bat
zatoz ikustera!



Juan Belmonte, 45 ZUMAIA

Itziaroko industrialdea F-4 ITZIAR

Tel. 199023